

Bergaran, 2021eko uztailaren 22an.

Bergarako Herri Proiektua eta eraldaketa soziala lantzeko

ELKARLAN HITZARMENA

BILDU DIRA:

Gorka Artola Alberdi jauna, NA duena eta Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkartzan, P2007900J zenbakia duena eta M^a Concepción Ugalde Izeta NA duena, udaleko idazkariaren laguntzarekin.

Irune Cano Ormazabal andrea, NA duena eta Olatukoop Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea Sustatzeko Sarea elkarteko lehendakaria, helbide soziala Pinudi plaza zb.1 7-1, 20.0001 Donostia (Gipuzkoa) eta IFZ zenbakia G75137521 duen aipatutako elkarlearen ordezkartzan.

Nagore Ipiña Larrañaga andrea, NA duena eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (aurrerantzean, MU-HUHEZI) dekanoa, helbide soziala Dorleta auzoa z/g, 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa) eta IFZ zenbakia F20079497 duen MU-HUHEZiren ordezkartzan.

Elena Herrarte Letona andrea, NA duena eta Debagoiena 2030 Garapén Iraunkorrerako Sarearen (aurrerantzean D2030) koordinatzaile nagusia.

Lau aldeek hitzarmen honetan elkar behartzeko ahalmena aitortu diote elkarri eta

ADIERAZI DUTE:

Elkarlanerako testuingurua honakoa dela:

Covid-19ak baldintzatu eta zeharkatutako azken urte honetan Bergarako herrian hainbat prozesu jarri dira martxan egoerari herri ekimenetik erantzuteko. Zaintza sareaz gain, kultur mahaia, tokiko ekonomia, lehen sektorea eta elikadura burujabetza sustatzeko dinamikak eta herri hezitzailea moduko prozesuak aktibatu dira Udalarekin nahiz D2030 ekimenarekin elkarlanean. Beharrak eraginda eta testuinguruak baldintzatuta hainbat prozesu txiki ez-egituratu martxan jarri dira eta indar, elkarlan eta ekintza sozial hori baliatu nahi ditugu modu iraunkor batean komunitateko eragileen arteko koordinazioa aktibatu eta gobernantza publiko kooperatiborako eredu berriekin Bergarak zein



Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea
LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia



eskualdeak dituen beharrak identifikatu eta behar horiek gaur egungo paradigma eta tokikotasunetik erantzun ahal izateko.

Era berean, Bergarako Udalak Agenda 2030eko Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) kontuan hartuta datozen urteetarako ekintza plana zehaztu, landu eta publiko egin du.

Olatukoop Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea Sustatzeko Sarea elkartearen helburua dira besteak beste *jendartearen ongizatea, eta jarduera ekonomikoak ondare komunari ekarpena egitea.*

Mondragon Unibertsitateko Huhezi Fakultateko Eskoriatzako campusean dago kokatuta LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia. Hiru helburu nagusirekin sortu zen ikertegia 2001. urtean: 1. Arrasateko esperientzia kooperatiboa eta, oro har, mugimendu kooperatibista aztertzea. 2. Ekonomia sozial eta solidarioa sustatzea. 3. Gizarte-berrikuntza eta autoeraketa bultzatzea.

Kooperatibek enpresa logikak eta giza balioak uztartzen dituzte, alde horretatik, sinetsita gaude kooperatibismoa ekonomian jarduteko eta gizartea antolatzeko tresna baliagarria dela. Horregatik, LANKI Kooperatibismoaren Ikertegian ari dira, gaur egungo erronketatik abiatuta, kooperatibismoaren berezko ezaugarriak berritzen eta sendotzen XXI. mendeko kooperatibismoa eraikitze aldera. Hori guztia elkarlanean eta esperientziak partekatuz.

D2030 Garapen Iraunkorrerako Sarearen helburua da eskualdearen garapen komunitarioan sakonduz, 2050 urterako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den Debagoiena bateranzko eraldaketa bultzatzea, horretarako, sektore ezberdinetako eragile eta herritarren arteko lankidetzak sareak ehunduz, besteak beste. Bergarako udala sare horretako kide da Udalbatzak 2020ko uztailaren 20an hartutako erabakiaren ondorioz.

Laurak ados jarri dira "Bergarako Herri Proiektua eta eraldaketa soziala lantzeko" proiektua burutzeko.

Proiektu horren bidez, bi prozesuak, herri proiektuaren prozesua eta eraldaketa sozialaren bulegoa, diseinatu eta sistematizatzeko aukera daukatela iritzita, lau aldeek komenigarria deritzote proiektu hori burutzeko hitzarmen bat sinatzea zehaztuta uzteko alde bakoitzaren eginbeharrak eta abar.

Gauzak horrela, honako klausulak dituen hitzarmena adostu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Lau aldeek "Bergarako Herri Proiektua eta eraldaketa soziala lantzeko" egitasmoa (aurrerantzean egitasmoa) burutzeko hitzarmen honetan bakoitzarentzako zehazten diren betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Egitasmoak honako ardatz hauek izango ditu:

- Herri eragile eta norbanakoendako **formazio eta saretze ekintzak.**
- Proiektu eta gai ezberdinen bueltako **ekintza espezifikoak.**



Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea
LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia



- **Hezkuntza aktiboa** Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat datozen erronken inguruan.
- Proiektu eta ekintzailatza sozial komunitarioko **proiektu berrien identifikazio eta sustapena** zein bidelaguntza.
- **Aholkularitza eta zerbitzua ingurumen gaietan**: energia, baso eta lurrak, elikadura burujabetza...
- **Eraldaketa sozialeko bulegoa sortu eta garatu** herritar eta eragileekin elkarlana sustatzeko tresna gisa.

Lan ildo zehatzei dagokienez, askotariko esparruak jorratzea aurreikusten da. Honako ildo hauei epe motzean helduko zaie, besteak beste:

- Komunitate energetikoak: Bergaran autokontsumora bideratutako litzatekeen energia berriztagarriaren ezarpenerako aukerak aztertu eta komunitate energetikoak bultzatzea da helburua. Bergarako Udala arduratuko da arlo teknikoaz eta bidelaguntzaz. Olatukoop. gizarteratze eta sareteaz, D2030 prototipoetako esperientzia partekatu eta Bergaran lur hartzeko aukerak aztertzeaz eta HUHEZI- MU prozesu guztiaren metodologiaren sistematizazioa egiteaz.
- Elikadura burujabetza: Bergaran elikadura burujabetzara bidean pausuak ematea da helburua, hainbat alorretan eraginez (kontsumoa, ekoizpena, banaketa...). Horretarako, inplikaturako eragileekin espazio partekatuak sortuko dira, horietan erabakitzeke eman beharreko pausuak. Olatukoop arduratuko litzateke prozesuaren dinamizazioaz, Bergarako Udala arlo teknikoaz eta bidelaguntzaz, D2030 prototipoetako esperientzia partekatu eta Bergaran lur hartzeko aukerak aztertzeaz eta HUHEZI- MU prozesu guztiaren metodologiaren sistematizazioa egiteaz.

BIGARRENA: Lau aldeek honako betebeharrak edota ardura hauek izango dituzte:

Begarako udalak:

- Eraldaketa sozialaren bulegoa abiatu eta martxan jarri horretarako lokala egokitu eta ekipamendua hornituko ditu, eta lokalaren mantentze gastuak bere gain hartuko ditu, baita garbiketa, argindarra eta telefono gastuak ere. Lokala egokitu bitartean udalak beste udal lokalen bat erabiltzen utziko die proiektu honetan parte hartzen duten entitateei.

Gastu horiek bere gain hartzeaz gain, 2021 eta 2022an 40.000 euro urteko bideratuko ditu herri proiektua eta eraldaketa soziala lantzeko egitaspora. Diru horrekin diruz lagunduko dira, Olatukoop eta MU-HUHEZIk bere gain hartzen dituzten betebeharrak eragindako gastuak.

2021 eta 2022an guztira emango dizkien dirulaguntzak honakoak izango dira:

- Olatukoop-eri, 72.622 euro.
- MU-HUHEZI-ri: 7.473 euro.



Humanitate eta Hezkuntza
Zientzleri Fakultatea
LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia



Dirulaguntzak ordaintzeko moduari dagokionez, urte natural bakoitzean horrela egingo da:

2021ean proiektuaren gaineko hitzarmena sinatzean, kontura, urterako onartutako dirulaguntzaren %60a eta beste %40a klausula honetan beheraxeago zehaztutako urteko jarraipen txostena aurkeztu eta onartu ondoren.

2022ko urtarrilean, kontura, urterako onartutako dirulaguntzaren %60a eta 2022ko abenduan behin azken txosten eta emaitzak entregatu eta emandako dirulaguntza justifikatu ostean %40.

D2030k:

- Eskualde mailan garatzen diharduten eraldaketa prozesua Bergarako eraldaketa sozialaren bulegoarekin konektatzea izango da egiteko nagusia, lankidetzaren sarearen jarduna Bergarara gerturatzeko aukerak sustatuz. Bide horretan, arlo ezberdinetan garatzen diharduten prozesu, azterketa eta proiektuen zein metodologiengatik informazioa partekatuko du Bergarako eraldaketa sozialaren bulegoarekin, eta bulegoaren jardunaren jarraipen zuzena egingo du, elkarlanerako aukerak identifikatu eta lantzeko helburuz.

Elkarlana eta saretzea izango dira Debagoiena 2030ekin jarduteko moduak ardazteko elementuak, ez dute ordainsaririk jasoko.

OLATUKOOPek:

- Prozesuaren eta eraldaketa sozialaren bulegoaren diseinu, dinamizazio eta bidelaguntza egitea. Finean, exekuzioaren zaintza eta ardura izango du. Aholkularitza eta lurraldeko beharren identifikazioa egin eta prozesu eta proiektu berriak aktibatzen testuinguruak sortzeko formazio eta saretze saioak egitea eta teknikariei zein arlokako mahaietako eragileetako herritarrei bidelaguntza egitea.

Horretarako bi langile jarriko ditu.

Bakoitzak hilean 240 orduko zerbitzua emango du. dinamizazio eta exekuzioari lotuta Olatukoop. Orduak guztira: 3.600 ordu. [62.370 euro]

Epealdia: 2021eko uztaila 2022ko abendua

Prozesuaren bidelaguntzari lotutako 20 ordu hilean. Guztira 220 ordu (10.252 euro)

Dinamizazioa, exekuzioa eta bidelaguntza: 72.622€

Entregagaiak:

- 2021eko abenduan jarraipen txostena. Ekintza planaren deskargoa eta egitasmoaren zehaztapena jasotzen duen txostena + komunikazio plana.

2022ko abenduan memoria kualitatibo eta kuantitatiboa. Eta sortutako dokumentazioa (ekintza plana, bulegoaren diseinu eta gobernantza eredu). Euskaraz eta digitalean entregatu dira idatziz txostenak eta besteak dagozkien euskarrian.



Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea
LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia



MU-HUHEZIKO Lanke Ikertegiak:

- Formazio prozesuen, lan metodologiaren eta sistematizazio eta jasoketa lanaren ardura izango du. Era honetako prozesuak egiteko gida praktikoa bat egingo du etorkizunean beste herri eta eskualde batzuetan horrelako egitasmoak martxan jartzeko baliagarri izango dena. Era berean, metodologiei lotutako beharrezko diren euskarri eta materialak garatzeko ardura izango du.

Koordinazioa, jarraipena, aholkularitza eta metodologiaren sistematizazioa: 7.474€

Ikerlari baten 20 ordu hilean. 160 ordu ikasturteko (Iraila- ekaina)

Entregagaia: Prozesuaren gaineko sistematizazioa jasotzen duen txostena. Euskaraz eta digitalean entregatu dira idatziz txostenak eta besteak dagozkien euskarrian.

HIRUGARRENA.- Olatukoop-ek eta MU-HUHEZIK hitzarmen honetan jasotako betebeharrak burutzeko, Bergarako Udalarekin eta hirugarrenekin harremana mantendu beharko dute. Beraz, proiektu honetan parte hartzen duten Olatukoop-eko eta MU-HUHEZIKO langileei Bergarako Udalari eskatzen zaizkion baldintzen antzekoak betetzen ditu, euskara mailari dagokionez. Hori dela eta, kontuan izanda eman beharreko zerbitzuen izaera, euskarako C1 maila badutela egiaztatzen dute.

Proiektua garatzen hasi aurretik, eragileok egiaztatzen dute zerbitzua emango duten pertsonak dagokion gaitasun linguistikoa daukatela.

Era berean, proiektua bukatu aurretik langile berriak hastekotan, horiek ere euskara egokia izango dutela ziurtatuko da.

Herritarrekin, euskaraz hitz egitea lehenetsiko da, kontuan izanda herritarren euren hizkuntza eskubideak.

Egitasmoan parte hartzen dutenek adostu dute proiektu hau burutzeko jartzen dituzten langileei dagokienez, bere gain hartzen dutela edozein enpresabururi dagokion zuzendaritza-botereaz baliatzeko obligazioa. Bereziki, ondoko betebeharrak hartuko dituzte bere gain: ordainsariak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta opor-egunak ematea; lan-arriskuen prebentzio alorrean legez dauden betebeharrak betetzea; diziplina-zehapenak ezartzea –hala egitea dagokionean–; Gizarte Segurantzaren alorreko obligazioak betetzea –kotizazioen ordainketa eta prestazio-ordainketa barne–; eta baita enpleguaren eta enplegatzailearen arteko lan-kontratutik sortzen diren gainerako eskubide eta obligazio guztiak ere.

LAUGARRENA.- Emandako dirulaguntzaren justifikazioa.

Bai Olatukoop-ek eta baita MU-HUHEZIK ere, 2022ko abenduan honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte udalak emandako dirulaguntza justifikatzeko:

1.- Emaizta ekonomikoaren memoria, hau da, zerrenda sailkatu bat, jardueraren gastuak eta inbertsioak jasoz, eta bertan zehaztu beharko dira hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, horrelakorik balego, ordainketa-data; eta bertan, era berean, zehaztu egin beharko dira diruz lagundu den jarduera hori finantzatzeko izan dituzten beste diru-sarrera edo dirulaguntzak, adierazita

bakoitza zenbatekoa izan den eta nondik etorri den. Memoria erreala dela adierazten duen zinpeko aitortena gehituko zaio, erakundeek sinatua.

2.- Faktura, agiri edo erreziboen kopiak eta horien ordainketa-agiriak ere bai.

3.- Egitasmo honi lotutako edozein eragilek jasotako dirulaguntzak aitortuko dute. Jasotako beste dirulaguntzen agiriak edo, dirulaguntzarik jaso ez bada, zinpeko aitortena.

BOSGARRENA. - Batzordeak eta antolaketa.

Prozesua gidatu eta koordinatzeko **Koordinazio Taldea** sortuko da, eta honakoa izango da bere osaketa:

- Bergarako Udala: 3 ordezkari.
- Olatukoop.: 3 ordezkari
- HUHEZI-Lanki ikertegia: 1 ordezkari
- D2030: 1 ordezkari

Koordinazio Taldearen funtzioak honakoak izango dira:

- Erabaki gune izatea, baldin eta udal eskumeneko gaiak izanda Udalaririk erabakitzea ez badagokio
- Hitzarmenean parte hartzen duten eragileen arteko koordinazio gune izatea
- Plangintzan onartu eta jarraipena egitea.
- Loturak egin arlo eta proiektuen artean.
- Lan eta funtzio banaketa zehatzak egin.
- Entregagaietarako irizpide zehatzak finkatu.
- Emaizak ekoitzi.
- Komunikazio planaren irizpideak adostu.

Ohiko bileren maiztasuna: Hilean behin.

Talde operatiboa.

Talde operatiboaren funtzioak:

Eguneroko erabakiak eta xehetasunak lotzeko ardura izango du, eta honako funtzio zehatzak izango ditu:

- Komunikazioa.
- Udal teknikariekiko lotura.
- Agenda kontrola.

Ohiko bileren maiztasuna: Astean behin.

Eragin ekonomikoa izango duten erabakiak hartzeko (finantzazio gehigarria behar duten ekimenak abian jartzeko, esaterako), Bergarako Udalaren oniritzia beharko da.

SEIGARRENA.- EZAGUTZAREN JABETZA KOLEKTIBOA

Egitasmo honen bueltan sortuz joango den ezagutzaren izaera irekia eta kolektiboa da.

Hitzarmen honetan erregulatzen den Egitasmoaren prozesu anitzetan sortzen den ezagutza hitzarmen honetara atxikitako eragile guztiena, kolektiboa, izango da; ez da eredu klasikoagotan bezala, alde bakarrarena izango, finantzatzailearena adibidez. Beraz, eragile bakoitzak Egitasmora egingo duen ekarpena jabetza kolektiboan uzten du eta aldean ekarpenen baturatik sortuko den ezagutza kolektiboa izango da. Eta horrela adieraziko da prozesuaren osotasunari edo edozein azpi-prozesuri buruz sortutako material edo argitalpenetan, egitasmoan inplikaturiko eragile batek edo gehiagok sortutakoa bada ere.

Alde guztien artean adostuko dute jabetza kolektiboa adierazteko bidea zein den.

Era berean, hitzarmen honetako edozein eragilek ezagutza hori bere aldetik ustiatzeko aukera izango du baina jardunbide horren muga honakoa da: ezagutza kolektibo horrekin egingo dena ezingo dela inolaz ere esparru kolaboratibo honen aurka egin.

ZAZPIGARRENA.- Egitasmoan sortutako ezagutzaren erabileraz.

Ezinbestekoa izango da Egitasmoaren testuinguruan sortutako ezagutza erabiltzen den bakoitzean egiletza aitortzea Koordinazio taldeak zehaztutakoen arabera.

ZORTZIGARRENA: Egitasmo hau burutzeko diru-laguntza eskatu zaionez Gipuzkoako Foru Aldundiari hark dirulaguntza emango balu, horrek ez du suposatuko udalaren aportazioa gutxitzea.

Bergarako Udala arduratuko da diru-laguntza emanaz gero, diru-laguntzaren justifikaziorako dokumentuak aurkezteaz baina dokumentazio hori prestatzen 4 aldeak lagunduko dute.

BEDERATZIGARRENA.- Indarraldia

Hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen denetik 2022ko abenduaren bukaerara arte.

HAMARGARRENA.- Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak

Hitzarmen hau amaituko da bere xede diren ekintzak burutu badira edo suntsiarazteko arrazoiak baleude.

Honako hauek izango dira suntsiarazteko arrazoiak:

- Hitzarmenaren iraupen-epea amaituko balitz, luzatzeko erabakirik adostu gabe.
- Alde guztien aho batezko akordioa.

- Aldeetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
- Deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judizialagatik legetan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

HAMAIKAGARRENA.- Proiektu hau burutzean lortutako datu pertsonalak, Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari eta horren garapen-araudiari jarraituz kudeatuko dira eta soilik proiektu hau burutzeko erabiliko dira, eta amaitzean ezabatu egingo dira.

HAMABIGARRENA.- Dirulaguntzari dagokionean, hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian honako hauek aplikatuko dira: Diru-ekarpenak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Estatuko Legea, lege hori garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta Bergarako Aurrekontuetako Udal Araua.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, esku hartzen duten erakundeek hitzarmen hau sinatu dute, nik, idazkariak, guztia ziurtatzen dudalarik.

Sinadurak:

Bergarako Alkatea
Gorka Artola

Idazkaria
Kontxi Ugalde

OLATUKOOP
Iruñe Cano

MU-HUEZI
Nagore Ipiña

Debagoiena 2030
Elena Herrarte

ARTOLA ALBERDI
GORKA - 72581398E

Firmado digitalmente
por ARTOLA ALBERDI
GORKA - 72581398E
Fecha: 2021.07.22
13:40:09 +02'00'

MARIA
CONCEPCION
UGALDE ICETA
- 15954776K

Digitalki sinatuta
norenagatik: MARIA
CONCEPCION UGALDE
ICETA - 15954776K
Data: 2021.07.22
13:19:59 +02'00'

44167612E
IRUNE CANO
(R: G75137521)

Digitally signed by
44167612E IRUNE CANO
(R: G75137521)
Date: 2021.07.23
09:20:23 +02'00'

16293497K
MARIA AINHOA
LETURIAGA (R:
F20079497)

Firmado digitalmente
por 16293497K MARIA
AINHOA LETURIAGA
(R: F20079497)
Fecha: 2021.07.22
15:25:07 +02'00'

ELENA
HERRARTE
LETONA,
72581713S

Firmado digitalmente
por ELENA HERRARTE
LETONA, 72581713S
Fecha: 2021.07.26
16:54:42 +02'00'



Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea
LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia



